



**Arartekoaren 2020R-1859-20, 2020ko abenduaren 18koa. Horren bidez, Lezoko Udalari gomendatu zitzaion berariaz eta modu arrazoituan ebazteko udal lizentziarik gabeko teilape bat eraistea agintzeko udal errekerimendua betearazteko aurkeztutako salaketa.**

### Aurrekariak

- Pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, Lezoko (...) baserrian udal lizentziarik gabeko teilape bat eraistea agintzeko udal errekerimendua betearazteko aurkeztutako salaketaren ostean, ordura arte ez zuelako jaso Lezoko Udalaren erantzunik.

Kexan aipatzen zen Lezoko Udalak Alkatetzaren 2020ko urtarrilaren 18ko D20/0034 Dekretua jakinarazi ziola. Horren bidez adierazten da baserrian teilapea eraikitzeke ez zegoela beharrezko lizentziarik, eta bateraezina zela Lezoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 120. eta 123. artikuluetan indarrean zegoen antolamenduarekin. Ebazpen horretan teilapea eraisteko agindua eman zen, jakinarazten zenetik hasita hilabeteko epean, eta obren sustatzaileari jakinarazi zitzaizkion hirigintzako araudiak nahitaezko betearazpenerako jasotzen dituen aurreikuspenak.

Kexagileak jakinarazi du 2020ko ekainaren 19an Lezoko Udalarekin harremanetan jarri dela, informazioa eskatze aldera teilapearen agindutako eraistea gauzatzeko hartutako neurriei buruz.

Kexagileak azaldu duenez, ez du prozesu horren inguruko hirigintza diziplinako jarduketei buruzko informazio gehiagorik jaso; horrenbestez, erakunde honetara jo du, hirigintza legezatasuna berrezartzeko udal jarduna aztertze aldera.

- 2020ko urriaren 19an, Arartekoak Lezoko Udalari galdetu zion gai horri buruz eta Lezoko (...) baserrian kokatutako teilapea kentzeko jarraitutako hirigintzako diziplina espedientearen egoerari buruzko eskaerari erantzuteko egindako udal jarduketei buruz.





2020ko abenduaren 1ean, Arartekoak Lezoko alkatearen idazkia jaso zuen; bertan, kexagileak aurkeztutako salaketari erantzuteko egindako jardueren berri ematen zen, honako termino hauetan:

*“Lezoko Udalak 2020ko urtarrilaren D20/0034 Alkatetza Ebazpenaren bitartez Teilape bat aurkeztutako proiektu eta emandako lizentziaren baldintzen aurka eraiki zela, jarduketa hori legeztazina zela adierazi eta eraikitako teilapea hilabeteko epean eraisteko agindua eman zitzaion (...) arau hausleari.*

*Aipatu dekretuaren bitartez halaber, emandako agindua bete ezean udala nahitaezko betearazpena ezarri ahal izango zuela adierazi zen, ondorengo hauen bidez:*

*a)Administrazio jarduleak edonoiz betearazpen subsidiarioa aplikatuta, ebazpenean ageri den borondatezko epea igaro ondoren. Dagozkion gastuak ekintzaren sustatzaileak, jabeak edo arduradunak ordainduko ditu.*

*b)Nahitaezko betearazpena aplikatuta, antolamendu juridikoa ezarritako bestelako bideak erabiliz.Horretaz gain, Fiskaltzari ere emango zaio ez-betetzearen berri, erantzukizunak esk daitezen.*

*c)Hertsapen-isunak ezarrita, 2/2006 Legearen 224.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*Udal agindua betetzeko hilabeteko epea aspaldi pasa bada ere ((...)k jakinarazpena 2020ko urtarrilaren 24ean jaso zuen), udalak ez du betearazpena gauzatzeko inongo ekinbiderik abiatu.”*

Bidalitako udal txostenak adierazten du Lezoko Udalak, Alkatetzaren 2020ko urtarrileko D20/0034 Ebazpenaren bidez, adierazi zuela teilapean egindako obrak aurkeztutako proiektuaren eta emandako lizentziaren baldintzen aurkakoak zirela. Horregatik, Udalak, ebazpen honen bidez, sustatzaileari agindu zion eraikitako teilapea eraisteko hilabeteko epean. Adierazi zuenez, emandako agindua betetzen ez bazen, Udalak nahitaezko betearazpena ezarri ahal izango luke, bat etorriz 2/2006 Legearen 224.6. artikuluan ezarritakoarekin.

Edonola ere, txostenak soilik adierazi zuen udal agindua egikaritzeko epea igaro arren, Lezoko Udalak ez duela inolako jarduketarik abiatu hori egikaritzeko. Gainera, txostenak ez du ematen kexagileari bere eskariarekin lotuta emandako erantzunaren berri.





Kexan adierazitakoa eta Lezoko Udalak emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizu:

### Gogoetak

1. Hirigintza diziplinan, udal administrazioek eskumena dute hirigintza antolamenduak araututako aktak kontrolatzean parte hartzeko, eta hirigintza arloko ikuskapenak eta lizentziak erabil ditzakete horretarako.

Gauzak horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 204. artikuluan dio udalei dagokiela hirigintzako legezkotasuna betetzen dela zaintzea. Hain zuzen ere, 204. artikulua bigarren paragrafoak berariaz adierazten du ezingo zaiola uko egin titulu horretan araututako ahalez baliatzeari. Horretarako, agintariek eta funtzionarioek ahal horiek baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetu beharko dituzte, kasu bakoitzean aurreikusitako epeetan.

Horrez gain, agerian jarri behar da ikuskatzeko, hirigintza legezkotasuna babesteko, urratutako ordena berrezartzeko eta arau hausteak zigortzeko administrazio ahalen egikaritzea xedaezina eta ukaezina dela.

Herri-administrazioek ahalmen horiek derrigorrez erabili beharra Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulutik eratorritako legezkotasun printzipioaren eta arbitrariotasun-debekuaren ondorio saihestezina da. Auzitegi Gorenaren hitzetan, Administrazioak, 2019ko urtarrilaren 28ko epaian (494/2019 errekurtsua), ezin ditu alde batera utzi zehapen-arloan dituen eskumenak, *"bere eskumenak, arlo horretan ere, ukaezinak baitira, eta legezkotasun-printzipioaren arabera gauzatu behar baititu eskumen horiek esleituta dituen organoak"*.

2. Horrela, obra edo hirigintza-erabilera jakin batek ez baldin badu lizentziarik, udal administrazioek ezkutuko jarduerak legeztatzeko espedienteak abiarazi eta sustatu behar dute, 2/2006 Legearen 219. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.





Araudian prozedura tasatu bat aurreikusten da, ezkutuko obrak eta erabilerak aldez aurretik eteteko. Era berean, obrak legeztatu ezin badira, udal-ebazpenak aginduko du, dagozkion zehapenak gorabehera, erabilera behin betiko etetea, legez kanpoko obrak eraistea eta lursaila bere egoera naturalera birjartzea. Hori guztia, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 224. artikulua aurreikusi bezala.

3. Kexan azaldutako kasuan jasota dago Lezoko Udalak Alkatetzaren 2020ko urtarrileko D20/0034 Ebazpenaren bidez jarraitutako administrazio jarduketa. Adierazi zuen teilapean egindako obrek ez daukatela derrigorrezko hirigintza lizentzia. Horregatik, Udalak, ebazpen honen bidez, sustatzaileari agindu zion eraikitako teilapea eraisteko hilabeteko epean. Adierazi zuenez, emandako agindua betetzen ez bazen, Udalak nahitaezko betearazpena ezarri, Ministerio Fiskalari urraketaren berri eman eta hertsapen-isunak ezarri ahal izango lituzke.

Hala ere, kexagileak salatu duen moduan, hainbat hilabete igaro ostean administrazio egintza horretarako aurreikusitako epearen amaieratik, ez dago jasota bete denik eta termino horietan egikaritu denik, bat etorritik ebazpenean aipatutako 2/2006 Legearen 224. artikuluko aurreikuspenekin.

4. Azkenik, adierazi behar da kexa bat aurkezteak, administrazioak aurreikusitako jakinarazpen formatuetako edozeinetan, salaketa gisa izapidetzea eskatzen duela, legerian aurreikusitako administrazio prozedura egokiaren bidez.

Termino horietan kalifikatu behar da 2020ko ekainaren 19ko idatzia. Horren bidez, kexagileak Lezoko Udalarari azaldu zion egikaritzeke jarraitzen zuela 2020ko urtarrilaren 18ko D20/0034 udal ebazpenak, baserrian eraikitako teilapeari buruzkoak. Beraz, informazioa eskatu zuen horrekin lotuta egindako udal jarduketari buruz.

Arartekoaren aburuz, eskaera hori hirigintzako antolamendua berrezartzeko salaketa gisa jo behar da.

Hirigintza arloko salaketa batek, gai horren inguruan dagoen ekintza publikoa erabiliz, administrazio espedientea izapidetzea ekarri behar du, hirigintza legeriari jarraikiz, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako arauekin bat etorritik.

Nolanahi ere, ekintza publikoa egikaritzeak alde interesatuei kasu bakoitzean dagozkien ekintzak eta errekurtsioak egikaritu ahal izateko aurrera eraman diren udal jarduketan berri emateko betebeharra dakar.





Testuinguru horretan, gogorazi beharra dago administrazio publikoek zentzuzko epe baten barruan berriazko erantzuna eman behar dietela herritarrek egiten dituzten eskaera guztiei. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 21. artikulua berriaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori. Prozedurei dagozkien arauetan ez denean ezartzen gehieneko epe bat, 39/2015 Legeak ezartzen du gehieneko epea ez dela hiru hilabete baino gehiagokoa izango, hasten denetik zenbatuta.

Legezko agindu horrekin bat, herri-administrazioek behar bezala izapidetu behar dituzte herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

### Gomendioa

Arartekoak Lezoko Udalari gomendatzen dio ahalik eta lasterren erantzuteko kexagileak 2020ko ekainaren 19an formalizatutako salaketari. Horren bidez, Lezoko Udalari eskatzen zaio Alkatezaren 2020ko urtarrilaren 18ko D20/0034 Ebazpena betetzen dela bermatzea. Ebazpen horren bidez teilapea hilabeteko epean eraisteko agindu zen.

Kasu horretan, Arartekoak adierazi duenez, udal-eskumen horiek eta dagozkion prozedurako bermeak betez, Lezo Udalak jarraitu behar du espediente hori bultzatzen, hirigintza-legezkotasuna berrezartzen dela bermatzeko eta horren ondoriozko jarduketan berri emateko interesdunei.

